2016-V-16
Número **490.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Zer egin dezakegu banketxeekin?

**Finantza-krisiaren hasieratik bederatzi urte igaro ondoren, ekonomilari eta sindikalista talde batek idatzi bat sinatu berri du garai horretan bankariek, finantzariek, erregimenaren ondoko alderdiek eta kontrol-erakundeek orduan hartu zituzten konpromisoen inguruan. ELAk bat egin du agiriarekin, ezinbestekoa baita iraganetik ikastea.**

**Lau eragile horiek –bankariek, finantzariek, erregimenaren ondoko alderdiek eta kontrol-erakundeek– porrot egin dute banka-sistema bide onera ekartzen, eta kreditu-eginkizuna bermatzen. Alderantziz, bultzatu dituzten ekimenak beren interesentzat bakarrik izan dira onuragarriak; gizartearentzat, ordea, kaltegarriak. Zenbait herrialdetan, besteak beste, Estatu Espainolean arbitrarioki erabili ziren baliabide publikoak –estatu-mailakoak nahiz Europa-mailakoak–, altxor publikoa larriki kaltetuz, finantza-erakundeak erreskatatzeko, eta banka bategiteko ekimenak sustatzeko eta diruz laguntzeko. Izan ere, aurrezki-kutxak merke-merke eskuratzen lagundu diote banka handiari, eta garapen ekonomiko eta soziala bankaren interes pribatuen menpe jarri dute. Europa osoan estali dira banka-balantzeen zuloak, eta banku pribatuetako zuzendaritzakoen neurriz gaineko lansariak banatzen utzi dute. *Panamako paperak* direla-eta, prentsara isuri diren albisteek erakutsi digute paradisu fiskaletara joandako zerga-desbiderapen eta ihesen maila lotsagarria, fortuna handien, politikarien eta korporazio handien aldetik.**

**Hasieratik ez genituen sinetsi haien esanak, eta arrazoi osoz. Banka-sistema bide onera ekarri beharrean, 2008ko irailaren 15eko Lehman Brothers-en porrotaren ondotik bidegabeko eralgitzeen zerrenda luze bat ikusi behar izan dugu, ondoz ondoko banka-porroten ondorioz argitara atera direnak. Eta denok dakigu nortzuk ordaindu dugun porrot hori: herritarrok.**

**Asko dira finantza krisi berri baten atarian egon gaitezkeela dioten lagunak. Zoritxarrez, badugu zer ikasi iragan hurbiletik.**

**1.200 EUROTIK GORA**

## ELAk eta CIGk negoziazio kolektiboaren estatalizazioak dakartzan ondorio larrien inguruko adierazpen bateratua adostu dute

# ESTATALIZAZIOARI AURRE EGITEKO ELKARLANA

ELAren ordezkaritza bat iragan astean Santiagon (Galiza) izan zen. Bisitaren helburua CIG sindikatuko kideekin bi herrialdeetako zein espainiar estatuko egoera sindikal, sozial eta politikoa aztertzea izan zen. Asko izan ziren jorratutako gaiak, baina bi sindikatuetako ordezkariek arreta berezia jarri zuten negoziazio kolektiboaren estatalizazioak Euskal Herriko zein Galizako langileei dakarkien ondorioak aztertzerako orduan. Izan ere, ELAk eta CIGk gai honen inguruan adostu zuten adierazpenak jasotzen duenez, negoziazio kolektiboaren estatalizazioak lan-baldintzak okertzen ditu eta askatasun sindikala urratzen du. (Oharra: adierazpena osorik *Astekaria* honen bigarren orrialdean irakurri liteke).

Baina, gai honen inguruko hausnarketa elkarrekin egiteaz gain, bi sindikatuetako ordezkariek estatalizazioari aurre egiteko estrategiak partekatu zituzten. Zentzu horretan, helburu hori lortu asmoz elkarlanerako hainbat esparru adostu zituzten. Negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarrealek azpimarratzen duenez, elkarlan hori hiru esparrutan egingo da. "Lehenik Galizako zein Hego Euskal Herriko parlamentuei (Gasteiz zein Iruñea) eskatuko diegu negoziazio kolektiboaren aldeko ebazpenak egin ditzatela. Gure ustez ez dago ez demokraziarik ez autogobernurik aberastasuna nola banatzen den erabakitzeko tresnarik ez badaukagu".

"Bigarrenik, bi sindikatuetako zerbitzu juridikoek elkarrekin lan egingo dute askatasun sindikalerako eta negoziazio kolektiboko oinarrizko eskubideen defentsa juridikoa prestatzeko. Hirugarrenik, beti egin izan dugun moduan, sindikalismoaren balioa aldarrikatu nahi dugu. Gobernu eta patronalek egitate sindikalak islatzen duen nortasun kolektiboa suntsitu nahi dute. Gure esku dagoen guztia egingo dugu hori saihesteko, sinetsita baikaude sindikalismoa dela langile-klasearen interesak defendatzeko bermerik onena. Azken erreformek, besteak beste, helburu nagusi hori izan dute. Lan-harremanak enpresa eta langileen arteko banakako erlazio bilakatu nahi dituzte, sindikatu eta eskubide kolektiborik gabe".




*Irudian maiatzaren 10ean ELA eta CIG sindikatuetako ordezkariek Santiagon egindako bilera. Bertan, besteak beste, negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren aurka borrokatzeko elkarlanean aritzea adostu zen. ELAren izenean Adolfo Muñoz (idazkari nagusia), Joseba Villarreal (negoziazio kolektiboko arduraduna), Laura Gonzalez de Txabarri (nazioarteko arduraduna) eta Haimar Kortabarria (azterketa bulegoko kidea) izan ziren.*

> *ELA y CIG trabajarán en común en contra de la estatalización de la negociación colectiva; para ello se abrirán espacios de colaboración*

Zentzu honetan, Joseba Villarrealek aurreratzen du gure sindikatuak aurki negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren aurkako kanpaina bat hasiko duela. "Gure ekintza sindikalean gai hau lehentasunen artean kokatu beharra dago. Milaka euskal langileren lan-baldintzak jokoan daude. Ez dugu onartuko gure lan baldintzak hemendik kanpo erabakitzea, ez eta euskal langileek erabakitzen dituzten gehiengo sindikalak ez errespetatzea".

# ACTOS SOBRE FISCALIDAD EN IRUÑEA Y BILBO

ELA celebrará los días 20 y 24 de mayo dos actos para analizar y debatir en torno a la fiscalidad. La primera cita es en Iruñea el 20 de mayo –10:00, Palacio de Condestable–; la segunda será en Bilbao –10:00, Paraninfo de la UPV, Abandoibarra–. Mikel Noval, responsable de política social, denuncia que la presión fiscal en Hego Euskal Herria es una de las bajas de la UE-28. "El debate sobre la fiscalidad es central para el diseño de un modelo social justo. Al fin y al cabo determina cuánto y cómo recaudan las administraciones. Que la presión fiscal en Hego Euskal Herria sea mucho más baja que la media de la Unión Europea es una muestra evidente de la orientación neoliberal que han inspirado las políticas fiscales y sociales de nuestro país en todos los ámbitos institucionales".

Noval anuncia que en los actos de Iruñea y Bilbao también se analizarán las alternativas de ELA en materia fiscal. Unas propuestas que recogen, entre otras cuestiones, medidas para la lucha contra el fraude fiscal y una estructura del IRPF más justa.



## Declaración de los Comités Ejecutivos de ELA y CIG sobre la estatalización de la negociación colectiva

# EMPOBRECE LAS CONDICIONES DE TRABAJO Y VULNERA LA LIBERTAD SINDICAL

**Una representación de las ejecutivas de CIG y ELA, encabezadas por los secretarios generales Suso Seixo y Adolfo Muñoz "Txiki", se reunieron el martes 10 de mayo en Santiago para analizar la situación sindical, social y política en Galiza, Euskal Herria y el Estado español. En esta reunión, entre otras cosas, ambos sindicatos profundizaron en el impacto de la estrategia que lideran la CEOE con CCOO y UGT para estatalizar la negociación colectiva. En relación con la estatalización ambos sindicatos decidieron elaborar una declaración conjunta en la que, además de denunciar los objetivos que pretenden esas organizaciones, anuncian los espacios de colaboración que CIG y ELA van a compartir para hacerles frente.**




## DECLARACIÓN

Las duras reformas laborales aprobadas en los últimos años por el PSOE y PP han establecido distintas medidas con el objetivo de empobrecer a la clase trabajadora, favorecer el aumento de los beneficios empresariales y debilitar el papel del movimiento sindical. Una de las medidas que favorece dichos objetivos es la posibilidad de estatalizar la negociación colectiva que permitió la reforma de Zapatero (PSOE) de 2011 y que tuvo continuidad con la del PP de 2012.

Tras analizar los convenios y acuerdos estatales, sectoriales y de empresa que CEOE, CCOO y UGT vienen firmando en España al amparo de aquella reforma, CIG y ELA queremos subrayar y denunciar sus principales objetivos:

**1.** La estatalización se realiza para empeorar sensiblemente las condiciones de trabajo. Las CEOE, CCOO y UGT cumplen el objetivo que, entre otros, el Banco de España, defendió para las reformas: dar prioridad a los convenios estatales para devaluar los salarios. El Banco explicó que sólo debían quedar dos ámbitos de negociación, el estatal (alejado de la participación real de los y las trabajadoras) y el de empresa, este último para flexibilizar al máximo las condiciones de trabajo. CIG y ELA subrayan que a día de hoy esta estatalización tiene un efecto mucho más negativo si se analiza desde la perspectiva de género: la mayor parte de los convenios afectados se corresponden con sectores muy feminizados.

**2.** Los convenios o acuerdos estatales (sectoriales y de empresa) que nos impiden negociar en ámbitos distintos al estatal pretenden evitar que otros sindicatos, representativos en nuestras respectivas naciones, seamos útiles a quienes nos han elegido como representantes para negociar sus condiciones de trabajo. En la práctica, la estatalización vulnera la libertad sindical, ya que veta el ejercicio de uno de los principales contenidos que definen ese derecho fundamental: la negociación colectiva.

**3.** El interés de la patronal es muy evidente: utilizar los convenios estatales, alejados de los propios trabajadores y trabajadoras y que impiden, por tanto, su participación, para ganar más dinero precarizando el trabajo y, de paso, tratar de hacer inviable la acción sindical y el recurso a la huelga.

**4.** Por su parte, CCOO y UGT se amparan en las últimas reformas laborales para tratar de favorecer su monopolio representativo en todo el Estado. CCOO y UGT dan a la patronal lo que quiere, a cambio de que la CEOE les reconozca como únicos interlocutores. Un objetivo, el del monopolio sindical, que en la medida que niega a otros ejercer el derecho fundamental a la libertad sindical y se realiza sin tener en cuenta a los y las trabajadoras afectadas, recuerda cada día más al sindicalismo vertical.

**5.** La CEOE, CCOO y UGT son organizaciones españolas beligerantes contra la existencia de otras realidades sindicales en naciones sin Estado, como es el caso de Galiza y Euskal Herria. Esta estrategia estatalizadora que llevan adelante deja en evidencia cuestiones que para CIG y ELA son muy importantes; la primera, la clara insuficiencia del marco normativo de nuestras respectivas naciones, que no recoge competencias en materia de legislación laboral y social; y la segunda, la estrecha relación de la lucha por la soberanía de nuestros respectivos pueblos con las condiciones de vida y trabajo de la clase trabajadora a la que representamos. La negociación colectiva es una vía capaz de crear normas en el ámbito laboral, que permiten a un sindicalismo reivindicativo como el que CIG y ELA representamos, ejercer una influencia directa para lograr una distribución más justa de la riqueza. Dejarnos sin negociación colectiva a los trabajadores y trabajadoras vascas y gallegas forma parte de una estrategia compartida por CCOO, UGT, con el poder económico y los gobiernos para avanzar en lo denominan "unidad de mercado español", para impedir que ejerzamos influencia y, en definitiva, para que seamos más pobres.

Ante esta situación, CIG y ELA hemos decidido poner en común nuestras experiencias y compartir estrategias para hacer frente a la estatalización. Con ese objetivo:

- Vamos a plantear a los Parlamentos de Galiza y de Hego Euskal Herria (Gasteiz e Iruña) que adopten resoluciones en defensa del derecho a la negociación colectiva y a favor de que la legislación laboral y social forme parte del contenido del autogobierno vasco y gallego. No existe democracia ni un autogobierno dignos de tal nombre sin que dispongamos de los instrumentos que determinan cómo se reparte la riqueza en nuestras respectivas naciones.
- Hemos aprobado que los servicios jurídicos de las respectivas organizaciones colaboren para preparar la defensa jurídica del derecho fundamental a la libertad sindical y la negociación colectiva.
- Seguimos reivindicando el valor del sindicalismo como instrumento de organización de la clase trabajadora para hacer frente a las estrategias patronales y de los gobiernos que tienen como objetivo destruir la identidad colectiva que supone el hecho sindical. Vamos a luchar con todas nuestras fuerzas contra la patronal que pretende imponer decisiones unilaterales basando las relaciones laborales en la relación individual empresa-trabajador/a, sin sindicatos y sin derechos colectivos.

**¡VIVA A CLASE TRABALLADORA GALEGA!**
**GORA EUSKAL HERRIKO LANGILERIA!**

**Comités Ejecutivos de CIG y ELA.**
**Santiago, 10 de mayo de 2016**



**Maiatzaren 12an ELAk formazio jardunaldia egin zuen Bilbon, *#breakfree2016 Utz itzazue erregai fosilak lur azpian* nazioarteko kanpainaren baitan**

# "ENERGIARENGATIK ORDAINTZEN DUGUNAREN ZATI HANDI BAT EZ DA ZILEGIA, IRUZUR BAT DA"




Maiatzaren 3tik 15era bitartean klima aldaketaren aurka eta planetaren bideragarritasunaren alde borrokatzen duten eragile ugarik *#breakfree2016 Utz itzazue erregai fosilak lur azpian* kanpaina egin zuten mundu zabalean. Kanpainaren helburua ikatza, petrolioa eta gasa lur azpian mantentzea da, energia berriztagarrietan guztiz oinarritutako sistema baterako trantsizio justu bat azkartzeko. ELAk bat egin zuen kanpainarekin, eta maiatzaren 12an gai honen inguruko formazio jardunaldi bat antolatu zuen.

Bertan, ELAko ingurumen arduradun **Ainhara Plazaola**rekin batera, hiru lagun mintzatu ziren: **Pablo Cotarelo**, mehatzetako ingeniaria eta Ecologistas en Acción taldeko kidea, **Asbjørn Wahl**, ITFko klima aldaketaren taldeko presidentea, eta **Bixente Ugalde**, Ipar Euskal Herrian energia berriztagarrien alde lan egiten duen I-ENER erakundeko ordezkaria.

**Cotarelo**k nabarmendu zuenez, "energiarengatik ordaintzen duguna iruzur bat da. Energia fakturan ordaintzen denaren zati handi bat ez da zilegia, eta helburu bakarra du: energiaren inguruko oligopolioek irabazi itzelak izatea". **Ugalde**k I-ENER ekimenaren nondik norakoak azaldu zituen. "Herritik sortu eta herriarentzako izango den energia eredu baten alde lan egiten dugu, herritarren energia ekoizpena bultzatuz. Energia berriztagarriak garatuz herritarrentzat egokia izango den eta trantsizio energetikoa bultzatuko duen tresna izan nahi dugu. Ezin dugu ahaztu Euskal Herrian kontsumitzen den energiaren %99 inportatua dela". Azkenik, **Wahl**ek klima aldaketaren aurkako borrokan sindikatuok dugun garrantzian sakondu zuen. "Borroka soziala klima aldaketaren borrokarekin bateratu behar dugu: bere erroan dauden zergatiak zein horiei aurre egiteko neurriak berdinak dira. Aliantza zabalak eratu behar ditugu, gizarteko botere-oreka aldarazteko indar nahikoa lortze aldera. Gure ekonomiako sektore estrategikoak kontrol demokratiko-pean izango diren jabego publiko bihurtzea izango da borroka horren oinarrizko atal bat. Guzti honetan sindikatuok zeresan ugari daukagu".

Formazio jardunaldiarekin batera ELAk kalean ere zabaldu nahi izan zuen *#breakfree2016 Utz itzazue erregai fosilak lur azpian* kanpainari atxikimendua. Gauzak honela, eguerdian gizakate batek Bilboko kale nagusiak zeharkatu zituen; katea Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean amaitu zen. Bertan, klima aldaketaren aurkako borrokan inplikazio handiagoa eskatu zitzaien erakunde publikoei.

*ELA se sumó a la campaña internacional '#breakfree2016, Libérate de los combustibles fósiles'. El objetivo de esta iniciativa es lograr que el carbón, el petróleo y el gas se mantengan bajo tierra y acelerar la transición justa a un 100% de energía renovable*

# PAI-REN IKERKETA: DISPAIRATEA

Apirilaren 26an Nafarroako Parlamentuan Jose Luis Mendoza, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia izan zen. Bertan, txosten bat aurkeztu zuen eta parlamentari batek (Gobernuari sostengua ematen dion gehiengokoa) hala definitu zuen: "landua eta zehatza".

Benetan? Zehatza? Landua? Ikus dezagun. Lehenik, iritzi-txostena dela esan beharra dago, PAIren ebaluaketa akademikoa baino lehen argitaratu dena. Hau da, iritzi ikerketa egin da programaren helburuak lortzen diren ala ez ziurtatu gabe. Baliteke horrela izatea helburuak ez direlako definituak izan; ikuskariek beraiek eztabaida taldean aipatzen dute: "inork ez daki zer eskatu behar den lehen hezkuntzako 6. mailan ezta zein konpetentzia linguistikoa ere".

Azter dezagun ikerketaren lagina. Martxoan, ADIPNAko zuzendari buruek, zeintzuk 40 zentro ordezkatzen omen dituzte, haien bazkideei PAIren ebaluaketari boikota egitera deitu zieten, baina berdin du, hor ditugu 40 horiek eta beste 66 zuzendari gehiago (itunpekokoak barne, hauek patronalaren ordezkariak izan daitezke, ez klaustro eta ez hezkuntza komunitateko partaide). Beraz, 106 pertsona hauei galdetegia pasa zaie eta bi eztabaida taldetan parte hartzera gonbidatu. Honek esan nahi du 106 pertsonek osatutako unibertsotik denek parte hartu dutela eta pertsonaren bat gainera bi aldiz (galdetegia eta eztabaida taldea).

Haien parte hartzea gutxi balitz, Hezkuntza Departamentuak zuzendari hauei eskatu die PAI programan dauden 35 irakasle aukeratzeko eta pertsona hauekin 4 eztabaida talde egin dira. Non dago lagin aleatorio eta anonimoa? Mendoza kontseilariak azaldu beharko du zergatik 35 irakasle horiei bakarrik galdetu zaien. Txostenak berak dio 566 irakasle direla PAI programan klase ematen dutenak (1.200 gehiago gaztelaniaz eta euskaraz). Irakasle guztiei galdetzeko baliabideak izanda (zuzenean eta anonimoki), ontzat hartzen da zuzendariek aukeratutako irakasleen %2. Horregatik ELAk kontsulta hau irakaslego osoari zabaltzeko exijituko dio Kontseilariari.

Gauzak horrela, nahiz eta ikerketa hau baliagarria, zehatza eta adierazgarria ez izan, parte-hartzaile guztiak bat datoz hurrengo gabezi nabarmenak azaltzean. Zentro bakoitzak bere baliabide eta irizpideekin garatu du programa, inolako ildorik jaso gabe Departamentuaren aldetik. Ingelesez emateko aukeratutako ikasgaiak zentroetan dauden irakasleen araberakoak dira. Orokorrean astean hamaika ordu ematen dira ingelesez eta ikasleak 6. mailara iristean A2 konpetentzia lortzen omen dute (elebidunak izatetik oso urrun). Leku batzuetan ikasgai tronkalak ematen dira; beste batzuetan zailtasun mailaren arabera zatitzen da ikasgaia (oinarrizko edukiak gaztelaniaz edo euskaraz eta gero ingelesez landu); ikasgaiak urtetik urtera aldatzen dira; arazoak dituzten umeei onarrizko edukietan bakarrik ebaluatzen zaie (gaztelaniaz). Zentroen %60an ez dago proiektu linguistikorik.

Gurasoen iritzia irakasleena baino baikorragoa da. Kontraesan itzela. Irakasleek umeen benetako edukimaila zuzenean ikusten dute, eta gurasoei oraindik ez zaie denboran zehar egindako ebaluaketa akademiko eta kontrastatua erakutsi.

Eta larriena, gure seme-alabak erabiltzen ari dira esperimentu-animaliak bailiran. PAI programa esperimentala zela esan zuten, baina ez zen ez esperimentu ezta kontrol talderik ere izan. Ez da bidezko ebaluaziorik egin, ez hasieran, ez bitartean eta ez geroago.

Alabaina, ez da trabarik egon Gimeno (PSN) edo Catalán (UPN) bezalako elebakar amorratuentzat PAI programa arrakasta dela esateko. Duela gutxi PAIren aurka azaltzen zirenak ere, orain ingelesaren kolonialismo linguistikoaren sareetan erori dira. Ezin ulertu bestela hauek esatea PAI ezberdintasun soziala murrizten duela. Txostenean bertan esaten da PAIk murgiltze programa hau barneratzen ez duten ikasleen kontzentrazioa areagotzen duela, "getizazio" arriskuarekin zenbait zentrotan.

Hezkuntza Departamentuak PAIrekin esperimentatzen jarraituko du. Aurrera. *P'alanteison*. Behintzat astakeria honen aurka ELAk jarritako salaketaren epaiketa erabakitzen den arte.

***Ander Pascual Ariz, Oihana Goiogana Bengoetxea, Juan Pedro Urabayen Mihura, Rosa Guzmán Iriarte, Nafarroako irakaskuntzako ordezkariak***

# IVÁN GIMÉNEZ, NUEVO RESPONSABLE DE COMUNICACIÓN



El Consejo Nacional de ELA –máximo órgano entre congresos– aprobó el jueves 12 de mayo la designación de Iván Giménez como nuevo miembro del Comité Ejecutivo en calidad de responsable de comunicación. De esta forma, Giménez ocupará la responsabilidad vacante tras el fallecimiento de Patxi Agirrezabala. Iván Giménez (Iruñea, 1976), licenciado en Periodismo, comenzó su trayectoria profesional en la radio libre Eguzki Irratia, en el año 1993. Posteriormente trabajó en Diario de Noticias de Navarra entre 1997 y 2011, donde fue delegado sindical.

Afiliado desde el año 2000, en 2011 se liberó para el sindicato, en la responsabilidad de miembro del Área de Formación. De ahí pasó a hacerse cargo de la responsabilidad de Gizalan en Navarra. Desde junio de 2015 ha sido miembro del Comité Nacional, en calidad de responsable interprofesional de Navarra.

Giménez es muy conocido en los ambientes militantes de lo social y de la cultura en Navarra. Además de colaborar en diferentes medios de comunicación, es autor de varios libros sobre la historia reciente de Navarra. Entre estos libros destaca *El corralito foral. Las tripas del navarrismo: un ecosistema al servicio del capital* (Editorial Pamiela), un libro que ha tenido mucho eco y se ha convertido en una de las principales referencias del cambio social y político en Navarra.

Además, Giménez es autor de *Agerre y Garcilaso: dos periodistas, víctima y verdugo del golpismo navarro* (Editorial Pamiela, 2013); *ELA en Nafarroa: 100 años de transformación y lucha* (Editorial Txalaparta, 2013) o *Sendero urbano de Pamplona* (Arrako Ediciones, 2000).

## PRESUPUESTOS, SERVICIOS JURÍDICOS, COYUNTURA...

Además de la aprobación de Iván Giménez como miembro del Comité Ejecutivo, el Consejo Nacional también abordó diferentes temas como el cierre del presupuesto del 2015, la presentación de un informe sobre la situación de los servicios juríços o el análisis de coyuntura.

En este punto, se destacó la importancia del reto organizativo como clave para poder responder a la actual coyuntura de continuos ataques que sufre la clase trabajadora en Euskal Herria.

# LABURREAN / BREVES

### • Continúa la huelga de las y los trabajadores encargados del mantenimiento de las carretares de Gipuzkoa

Las y los trabajadores de UTE Goierrialdea, UTE Urola-Deba y UTE-Miramon (empresas encargadas del mantenimiento de las carreteras de Gipuzkoa y que dependen de la Diputación) continúan en huelga indefinida desde el 1 de marzo. El objetivo de la huelga es exigir un convenio justo que acabe con la enorme precariedad que llevan sufriendo desde hace años. Manu Tena, responsable de ELA en el sector, denuncia el inmovilismo de la Diputación foral ante este conflicto. "No podemos olvidar que hablamos de servicios públicos, adjudicados por la Diputación y pagados con los impuestos de la ciudadanía. Saben de sobra cual es nuestra situación: jornadas interminables de más de 12 horas, ritmos exagerados de trabajo, falta de personal, precariedad, inaplicación del convenio... Pero, repito, pese a saber todo esto han preferido mantenerse en el actual inmovilismo".




Precisamente, con el objetivo de denunciar su situación y exigir a la Diputación que se implique en la resolución del conflicto, las y los trabajadores en huelga se manifestaron el 13 de mayo en Donostia. "El seguimiento de la huelga –añade Tena– está siendo total, lo que demuestra la implicación de estas plantillas y el hartazgo por su situación. Tenemos claro que no vamos a parar hasta acabar con la precariedad y hasta conseguir un convenio que dignifique nuestras condiciones de trabajo".

### • "Las patronales se están riendo de las trabajadoras de las residencias de Bizkaia"

Gaizka Miguel y Soraya García, responsables de las Residencias de Bizkaia, denuncian duramente la actitud mantenida por la patronal en la reunión celebrada el 12 de mayo. "Tras tres meses sin reunirnos, el 12 de mayo se celebró una nueva reunión con la patronal en torno a la negociación del convenio. Han pasado tres meses, seis jornadas de huelga, otras cinco jornadas convocadas. Pues bien, llegamos a la mesa negociadora y resulta que las patronales no han variado en nada su pésina oferta. Bueno, siendo correctos, nos trasladaron una propuesta limitada al incremento salarial de 3 euros al mes a cambio de desconvocar la huelga. Es evidente que, una vez más y como han hecho hasta ahora, las patronales pretenden seguir riéndose de las trabajadoras".

Miguel y García destacan que esta actitud patronal no sería posible sin la complicidad de la Diputación. "La Diputada de Bienestar Social sigue dando cobertura a las posiciones patronales y sigue sin reunirse con ELA, sindicato convocante de la huelga y que tiene el 66% de representación. No podemos olvidar que la Diputación de Bizkaia es financiadora del servicio en un 70 %, así como la responsable de dotar de calidad asistencial a los vizcaínos y vizcaínas que hacen uso de los centros residenciales".

"Tras el fracaso de la reunión del 12 de mayo –añaden–, no nos queda otro remedio que mantener la convocatoria de huelga para los días 18, 19, 20, 21 y 22 de mayo".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado nº 08/207**